KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA

4.1 Zurbaran Ikastetxeko esperientzia
4.1.1 Komunikaziorako tailerra

CEP Zurbaran Ikastetxea
Irakasleak: Ana Bueno eta Nati Ovelleiro

Eskolaren ezaugarriak

Zurbaran ikastetxea Bilbon dago, langileen auzo batean.
A, B eta D ereduak dauzka:

- Haur Hezkuntzan, B eta D ereduetan, 163 ikasle ditu, 10 taldetan banatuta
- Lehen Hezkuntzan, A, B eta D ereduetan, 185 ikasle ditu, 11 taldetan banatuta.

CEP Zurbaran Ikastetxea

Eskola 34 maistrak eta 3 maisuk osatzen dute.

Gurasoen Elkarteak betidanik lankidetzan jardun du eskolarekin, eskolako proposamen guztietan. Oso aktiboa denez, asko laguntzen dio eskolari.

Zurbaran ikastetxeak *Gure artean* proiektua sortu zuen, 2002. urtean, familien laguntzarekin, eta oraindik indarrean dago. Eskolako identitate-ikurra bihurtu da. Proiektuan, DBHko Institutura doazen ikasleek ere hartzen dute parte.

Institutua IES Zurbaran DBH da eta eskolatik oso hurbil dago (40 metrora). Horrekin batera erabiltzen ditu areto batzuk —jantokia, patioa, etab.— baina beste ordu batzuetan.

Bai eskolan, bai institutuan, ikasle etorkinen presentzia esanguratsua da. Ikasleen jaioterriak eta ezaugarriak oso anitzak dira:

1.-Eskolako hizkuntza bat edo biak ezagutzen ez dituztenak.
2.-Gazteleraz hitz egiteko arazoak dituztenak.
3.-Bere adineko kideek baino ikasketa-maila baxuagoa daukatenak.
4.-Egokitzapen-arazoak dituztenak.

Eskolak pentsatzen du ikasleen aniztasuna aberasgarria dela, eta guztiontzat —bai etorri berrientzat eta bai hemengoentzat— "arazo" izan beharrean altxor bihur daitekeela.

Horrela ikusita, eskolak estrategia orokor bat garatu du zentro osoan, ideia ardatz batekin:

> hezkuntza eskubide unibertsala da
> eta horregatik
> guztion eskubidea betetzea da
> haren lana.

Horrek zera dakar: alde batetik, ikasleen gizarteratzea eta eskolako integrazioa lortu behar dela, gizartetik kanpo ez geratzeko; beste alde batetik, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aberastasun- adierazle dela eta eskolako partaide guztiak horretan hezi behar direla.

Helburu horiek lortzeko martxan jarri dituzten neurrien artean komunikaziorako tailerra nabarmentzen da.

Komunikaziorako tailerra

2004-05 ikasturteko tailerraren proposamena 2003-2004 ikasturtean egindako hizkuntza-tailerretatik sortu zen.

Proiektuaren hasiera: Hizkuntza-tailerra 2003-2004

2003-2004 ikasturtean hizkuntza-tailerra antolatu zen. Asmoa hau zen: eskolan dauden hizkuntzei buruz eta komunikazioari buruz aritzea eta hausnartzea.

Tailer horretatik, eskolako ikasle guztiak pasatu ziren. Lehenengo sei hilabeteetan 4. 5. eta 6. mailako ikasleei tokatu zitzaien. Ordu eta erdiko saio bakarra izan zuten.

Saioaren hasieran, HIZKUNTZA hitzari buruz eztabaidatu zuten, honelako galderei guztien artean erantzun nahian:

- Hizkuntza eta Euskara berdinak al dira?
- Zer da hizkuntza bat?
- Zenbat hizkuntza daude munduan?
- Zenbat hizkuntza daude gure eskolan?

Ondoren, irakasleak eta DBHko ikasleak elkar ezagutzeko aurkezpena egin zuten ikasleek.

Azkenik, txokoetan jarri eta hizkuntza-jolasak egin zituzten:

- Ikasleen arteko hizkuntza bat asmatu. Adibidez, tun-tun: mahaia...
- Hitz gurutzatuen jolasa: Scrable.
- Abesti bat asmatu.
- Georgieraz hitz bat esan eta zer izan daitekeen igarri.

Txokoak egiten ziren bitartean, DBHko ikasle marrokiar bat izenak idazten pasatzen zen mahaietatik eta eurek kopiatu egiten zuten.
Azkenik 5 minututan agurra eta ebaluazioa egin zen.

Bigarren seihilekoan, 1., 2. eta 3. mailako ikasleak etorri ziren. Saioak, oraingoan ere, ordu eta erdikoak izan ziren.
Hasierako eztabaida, hizkuntzari buruzkoa, berdin egin zen, baina era laburrago eta sinpleago batean.
Ondoren, aurkezpena egin eta hizkuntzari buruzko jolasak egin zituzten.
Italieraz "Quattro Pirati" abestia eta zenbait hitz ikasi genituen. Tailer horretan, irakasle Italiako pertsona bat izan zuten.
Eskola osoak parte hartzea erabaki zuen, saio bateko ekintzetan, eta horretarako, adin guztietako talde malguak antolatu ziren. Saioak antolatzeko, formatu ezberdinak erabili ziren, ikasleen arabera eta eskolatik kanpo lortu ziren laguntzen arabera.

Hizkuntza-tailerraren helburuak hauek izan ziren:

- Komunikatzeko zabaltasuna lortzea.
- Hizkuntza guztiek balio berbera daukatela ulertzea.
- Ikasle etorri berriek asko dakitela barneratzea.
- Eskolako ikasle guztiek elkar ezagutzea (A, B eta D ereduak).
- Jarrera eta portaera onak sustatzea: batzuetan isiltasuna behar da besteei ondo entzuteko.
- Euskara eskolako komunikaziorako hizkuntza dela ikustea.

Ebaluazioa egiterakoan, honako helburu hauek lortu ziren:

- Hitz egiten duenari errespetua adieraztea.
- Hizkuntzari buruz hausnartzea.
- Mundua "gurea" baino handiagoa dela ulertzea.

Irakasle ez diren beste heldu batzuen presentzia oso aberasgarri ikusi zuten, eta bereziki garrantzitsua iritzi zen gurasoen parte-hartzea.

Aldi berean, emandako denbora eta gaien *espektroa* luzatzea beharrezkoa dela erabaki zen.

Komunikaziorako tailerra 2004-2005

Eskolako egoera kulturartekotasunaren ikuspegitik aztertuta antolatzen da tailerra.

Tailerraren helburu nagusia hauxe da: aniztasunak aberats egiten gaitu eta aberastasun horretan partaide guztiek hartu behar dugu parte, gure hamar hizkuntzekin eta kulturekin.

Baina eskolak bakarrik ezin du nahi besteko erantzun aberatsa eman, eta hurbil dagoen inguruari begiratzen dio laguntza bila.

Aurreko tailerrean emandako denbora oso egokia izan zen sentsibilizazioa egiteko. Hala ere, pentsatu zuten hausnarketa sakonagoa egiteko behar-beharrezkoa zela denbora gehiago ematea, eta nahiz eta zenbait adinetako haurrak izatea aberasgarria izan daitekeela ikusi, txikienak baztertuta sentitzeko arriskua ere ikusten zen.

Komunikaziorako tailerra hizkuntzaren tailerraren ondorioa da. Lehengoaren ebaluazioa egin eta gero, hiru erabaki hartu zituzten: tailerra egiteko ematen den denbora luzatu egin behar da, hausnarketa sakonagoa egiteko; hausnartzeko gaia ere sakondu egin behar da, hizkuntzatik komunikaziora joateko; eta ikasleen adin-eremua murriztu egin behar da.

Horregatik, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat antolatzen da tailerra, lau saiotan banatua.

Tailerraren helburu orokorrak

Tailerraren helburu orokorrak hauek dira:

- Hizkuntzak jakiteak eta erabiltzeak aberats egiten gaituela barneratzea.
- Ikaste-prozesuari errespetua izan eta motibazio handiagoa lortzea.
- Etorri berrien autoestimua indartzea.
- Beste hizkuntza batzuekiko eta haien hiztunekiko interesa azaltzea.
- Eskolako hizkuntzen ezaugarri batzuk ezagutzea.
- Euskara komunikatzeko tresna gisa ikusaraztea.

Eranskin moduan aurkezten dira tailerreko lau saioen programazioa, erabilitako materialak —horretarako bereziki diseinatu direnak barne—, eta bibliografia.

Nola izan da?

Lehenengo saioa

Lehenengo saioan hausnarketa bat planteatzen da: hizkuntza-tailerretik komunikaziorako tailerrera abiatzea. Horretarako, lehenengo mementoan, galdera batzuen bidez umeek bereganatzen dute aurtengo tailerra joan zen urtekoaren ezberdina izango dela.

Bigarrenean, konturatzen dira zein den tailerraren izena eta zer esan nahi duen horrek: zer den komunikazioa eta zertarako balio duen.

Umeen erantzunak arbelean idazten dira eta horiei buruz komentarioak egiten dira.

Guztiok elkar ulertzea komunikatzea, hitz egitea baino gehiago dela ulertzea lortzen denean, Mikel Laboaren *Komunikazio-Inkomunikazio* abestia entzun eta horretarako ataza bat proposatzen da: zer hizkuntzatan abesten duen bilatzen saiatzea.

Umeen erantzunak erkatu eta ondorio honetara heltzen da: hizkuntzak “musika” baino gehiago dira.

Hurrengo proposamena aurkezpenarena da. Lehenenik eta behin, irakasleek eta laguntzaileek bere burua aurkezten dute: italieraz, ingelesez eta fungez (Angolatik etorritako ume baten hizkuntza). Eta umeak informazio hori ulertzen saiatzen dira aurretik emandako fitxak betetzeko.

Ume bakoitzak bere aurkezpena egiten du nahi duen hizkuntzan: euskaraz; espainieraren zenbait aldaeratan (gaztelania, txilera, argentinera); portugesez; arabieraz, eta umeek asmatutako “chi-hizkuntzan”.

Ulertzen dutena denen artean komentatu eta abesti batekin hasten da. Aukeratutako abestia Alouette da.

Azken mementoan, ikasi dugunari buruz hitz egin da eta agurrekin amaitzen da saioa.

Bigarren saioa

Bigarren saioaren gaia hau da: komunikatzeko, hizkuntzak ez diren beste tresna batzuk ezagutzea.

Horretarako, tailerraren antolakuntzak laguntza bereziak eskatzen ditu, bai eta talde-lanean jartzea.

Hasteko, irakasleek gonbidatu guztiak aurkezten dituzte: Bizkaiko gorren hezkuntza-zerbitzuen koordinatzailea, Kesare; Euskal Gorrak elkartearen lehendakaria, Juanjo; keinu-hizkuntzako irakaslea bere itzultzailearekin, (Joana); CRItik (Centro de Recursos para Invidentes) material sortzailea, Maria.

Aldi berean, saioaren plangintza azaltzen da eta ikasleen aldetik espero den parte-hartzea eta portaera ere komentatzen da.

Gela zenbait txokotan antolatzen da, hiru lan-taldetan, eta bakoitzean 20 minutu arituko dira. Horrela, ume guztiek hiru txokoetan lan egiten dute.

Braille txokoa:

Umeek aukera daukate itsuek irakurtzeko eta idazteko erabiltzen dituzten materialak ezagutzeko: zer den braille-sistema eta zertarako balio duen. Braille-alfabetoa irakurri eta alfabetoaren bidez izenak idazten dituzte.

Keinu-hizkuntza:

Keinu-hizkuntzako lehenengo eskola bat ematen zaie. Nork eta zertarako erabiltzen duten hizkuntza ulertzen dute, eta zenbait gauza ikasten dituzte: agurtzen, izenak idazten, alfabetoa ulertzen eta hizki batzuk egiten, bere buruak keinu batez identifikatzen eta txaloak egiten.

Morse:

Morse zer den, noiz erabiltzen den eta zertarako balio duen ulertzen dute. Alfabetoa ezagutzen dute eta mezu batzuk entzun eta ulertzen dituzte. Mezu txiki bat ere bidaltzen dute.

Azken erronda egin baino lehen, umeei eskatzen zaie adi-adi egoteko hurrengo egunean egingo dutena azalduko dutelako.

“Quattro pirati” abesten da: gonbidatuei eskerrak eman eta agurtu ondoren, berriro etortzeko konpromisoa lortzen da.

Hirugarren saioa

Hirugarren saioan bi gai daude: batetik, aurreko tailerraren balioespena, hausnarketa egitea, eta, bestetik, eskolan dauden beste hizkuntzak ezagutzea.

Horretarako, eskolako bi amaren laguntza dute: Fatima, marokoarra, arabiar hiztuna eta klaseko neska baten ama, eta Mireia, poloniar hiztuna, Haur Hezkuntzako ikasle baten ama. Eskolako laguntzaile batek, Susanak, lagunduko die.

Galdera batzuen bidez, tailerrean egindakoa gogoratzen da. Lana ematen zaie eta taldeka fitxa betetzen dute. Talde bakoitzetik pertsona bat aukeratzen da, beste guztien aurrean aurkezpena egiteko.

Bigarren partean, Fatimak bere burua aurkeztu eta arabieraz agurtzen du. Gero, ikasleak behar duten informazioa bilatzen saiatzen dira, aurkezpenaren fitxa betetzeko.

Informazioa bateratzerakoan, Fatimak hainbat hitz idazten ditu arbelean, eta irakasleak idazkeraren noranzkoaz hausnarketa egiten du.

Oso interesgarria da ohartzea umeek Fatimak “aldrebes” egiten duela komentatzen dutela. Irakasleak “aldrebes” hitza erabili ordez, hobeto adierazten duen beste bat bilatzera bideratzen ditu galdera batzuen bidez.

Gero amak ipuin bat irakurtzen du eta alabak beste ikasleei itzultzen die.

Azkenik, Mireiak agurtu eta bere burua aurkezten du polonieraz. Umeek fitxa betetzen dute ulertzen duten informazioarekin.

Informazioa bateratu, eta abestiarekin amaitzen da. “Sto lat” —polonierazko urtebetetzeko abestia— abesten da eta eskerrak eta agurrak eman ondoren, saioa amaitzen da.

Laugarren saioa

Laugarren saioan orain arte ikusitakoaz hausnartzen da; hizkuntzak, lengoaiak eta sistema guztiak kontuan hartzen: zein diren komunikaziorako ezinbesteko baldintzak. Kodeei buruz beste ataza bat proposatzen da, eta bukatzeko, tailerraren ebaluazioa egiten da.

Gonbidatuen aurkezpenarekin hasten da eta, sarrera moduan, irakasleak azaltzen du musika beste lengoaia mota bat dela eta horren bidez hainbat sentimendu adierazten direla.

Dantzariak ikasle ohiak eta tailerreko ikasle bat dira. Aurkezpena egin ondoren, galdetzen zaie zer motatako dantza egingo duten eta dantza horri buruz zer dakiten. Umeek azalpenak entzun eta emanaldia ikusten dute. Hau da ataza: zer sentitzen duten adieraztea eta dantzariek, dantzaren bidez, zer esan nahi diguten asmatzea.

Emanaldia laburra da: bi “break-dance” abesti izugarrizko trebetasunez egiten dituzte.

Denek adierazten dute sentitu dutena: ikasleek eta dantzariek. Guztiek parte hartzen dute eta oso aberatsa da. Sentimenduak adierazteko hitzen aukera oso berezia eta interesgarria da

Dantzariak joan ondoren, beste gela bateko ikasle batek emanaldi bat ematen du bi txirulaz.

Jolea autodidakta da, eta irakasleak hori aprobetxatzen du autodidakta hitzaren esanahia komentatzeko.

Prozedura berberari jarraitzen zaio: emanaldia, hausnarketa txiki bat eta jolearen ikuspuntua.

Gero, binaka, erabaki behar dute zein diren komunikaziorako ezinbesteko baldintzak —zerrenda batetik aukeratuz—, eta besteen aurrean aurkeztu eta zergatia azaltzen da.

Tailerraren ebaluazioa egin eta "*Ten green bottles"* abesten da.

Kabala bat eta Rosetta harriari buruz irakurtzeko testu bat ematen zaie etxerako lan moduan, eta azkar-azkar eskerrak eman eta agurrak egiten dira.

Balorazio orokorra

Programatuta zegoenetik gauza batzuk egitea ezinezkoa izan da, baina horrek esan nahi digu oso gai interesgarria dela umeek zein partaide guztiek biziki parte hartu nahi izan dutela.

Ikasleak gustura egon dira eta eztabaidetan parte hartu dute. Ahal den neurrian, sentitzen ari direna adierazten dute, eta badirudi aldaketa nabarmena sentitzen dutela: komunikazioa hizkuntza baino gehiago dela; beste komunikazio-sistema batzuek garrantzi

berbera daukatela; gure eskolan beste hizkuntza batzuk daudela, gureak bezain inportanteak; badaudela komunikatzeko beste lengoaia batzuk, etab.

Orokorrean, programatutako helburuak lortu dira eta irakasleak oso pozik gelditu dira. Tailerrean erabilitako hainbat dinamika eta antolakuntza beste esparru batzuetara zabaltzea hausnartzen dute.

Arrakasta ikusita, eskola osora zabaltzeko beharra ikusten da, eta prestakuntza-saio bat antolatzen da.

Oso esperientzia polita izan da, eta parte hartu duten guztiek —umeek, laguntzaileek eta irakasleek— aberasgarritzat jo dute ikasitakoa, interesgarria iruditu zaie eta gogo onez hartu dute parte.

Eskola guztiek oso ahaltsuak diren tresnak dauzkate, erabiltzen ez direnak, eta laguntza asko dituzte eskura, nahiz eta ezezagunak zaizkien. Hausnartzea merezi du: dauden baliabideak aztertu eta pentsatu nola integratu gure plangintzetan. Eskolak bakarrik ezin du, baina guztion laguntzarekin gehiago eta hobeto lan egin dezakegu.

Antzeko esperientzia egitera animatzen zaituztegu, eta horretarako, eranskinetan eskaintzen dira erabilitako material guztiak. Egileen baimena dute fotokopiatzeko.